

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
1 positibo berri	1.602 hildako EAEn	5 positibo berri	518 hildako
2.281 positibo guztira*	12 UCIn, EAEn	5.364 positibo guztira	5 UCIn
*Hernanin 64, Astigarragan 21		Sendatuak: EAE 17.742, Nafar. 8.556	

## Gaur egingen du aurreneko bisita Liburutegi Ibiltariak, alarma egoera hasi zenetik, Aranora eta Goizuetara

Goizeko 11:30etan iritsiko da Goizuetara, eta 12:30etan Aranora. Ordu erdi egonen da herri bakoitzean, liburuak hartu edo bueltatzeko.

### ARANO-GOIZUETA LIBURUTEGIA

Otsailean jarri zuen martxan Harkaitz Delgadok, Leitzako Liburutegiko arduradunak, Liburutegi Ibiltaria izeneko ekimena. Horrekin, hilean behin egingen zuen bisita, Aranora, Goizuetara eta Aresora, herritarrei eramateko internet bidez, WhatsApp zein Telegram erabiliz, telefonoz edo

emailaz eskatutako liburuak, diskoak eta pelikulak; eta bueltatu behar zituztenak jasotzeko. Leitzara joan beharra aurrezten die horrela.

Baina COVID-19aren eraginez, behin bakarrik egin du bisita orain arte, eta etenda egon da martxotik. Aste honetan jarri da martxan, berriro: atzo egin zuen bisita Aresora, eta gaur izanen

da Aranora eta Goizuetan.

Goizeko 11:30etan iritsiko da Goizuetara, eta 12:00ak arte egonen da Goxalin. Eta bertatik joanen da Aranora gero, eguerdiko 12:30etan iristeko. Ordu erdi egingen du han ere, 13:00ak arte.

Katalogo osoa ikusgai dago interneten, [navarra.es/opac](http://navarra.es/opac) web orrian; eta eskaerak egiteko, hiru bide daude aukeran: WhatsApp edo Telegram bidez idatzi, 617 385 882 zenbakira; telefonoz deitu, 948 51 03 79 zenbakira; edo emailaz idatzi, [biblilei@navarra.es](mailto:biblilei@navarra.es) helbidera. **K**



Eskatutako liburuak eraman, eta bueltatzekoak jasoko ditu Liburutegi Ibiltariak.

## Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren kontratu aldaketa onartu du Astigarragako Udalak, «presaz»

Plan Orokorra idazteko zerbitzuaren kontratuan, hori gauzatuko duen enpresa aldatzea erabaki zuen Astigarragako Udalak, asteartean egindako ezohiko Osoko Bilkuran. Beste zenbait gai garrantzitsu, Tokiko Gobernu Batzordean.

### ASTIGARRAGA UDALA

«Presazko» gai bat onartu behar zenez, ezohiko Osoko Bilkura eta Tokiko Gobernu Batzordearen bilera egin zituen Astigarragako Udalak, asteartean. Telamitikoak izan ziren asteartean egin ziren batzarrak, «oraindik alarma egoerak indarrean jarraitzen duelako». Baina Udalak jakinarazi du, behin alarma egoera amaituta, «aurrez aurreko batzarrak egiten» hasiko direla.

Astearteko Osoko Bilkurara, gai zerrendan puntu bakarra eraman zuten, «presazkoa zena»: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko zerbitzuaren kontratuan enpresa aldatzea, hain zuzen ere. Izan ere, apirileko Osoko Bilkuran, Grupo Dahye Development In-

vestment S.L. enpresari esleitu zitzaion kontratua, baina Astigarragako Udalak azaldu du, ez dituztela beharrezko baldintzak betetzen; hau da, «baldintza-agirian eskatutako gaitasun profesional edo teknikoko gutxieneko baldintzak dauzkanik ez du egiaztatzen». Hori kontutan izanik, Grupo Dahye Development Investment S.L. enpresari Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzu-kontratua ez esleitzea erabaki zuen asteartean, Osoko Bilkurak.

Eta honen ordez, Astigarragako Plan Orokorra idazteko zerbitzu kontratua Sabai Arkitektoak S.L.P. enpresari esleitzea onartu zuten, «295.000 euroan (BEZa barne hartu gabe), betiere beharrezko dokumentazioa, fidantza, eta abar aurkezten ba-

ditu», jakinarazi dutenez.

### Tokiko Batzordean jorratu ziren gai «esanguratsuenak»

Hainbat gai «garrantzitsu» jorratu ziren Tokiko Batzordean; haien artean, DBHko ikastetxea eraikitzeko Udala Gobernua egiten ari den lanean «ezinbesteko urratsari buruz» jardun zuten, eta erabaki zen martxan jartzea, «Santiomendi eta Mendiaundi arteko goi-tentsioko dorreen tentsio ertaineko sare elektrikoa lurperatzeko proiektua eta lehiaketa». Gainera Xabier Urdangarin alkateak azaldu du, asmoa dela «urte amaierarako amaitzea, eta oraingoz bide onetik goazela esan genezake».

Bestalde, martxan jarri zen lehiaketa, *Pumptrack* pista eraikitzeko, 2018 urteko aurrekontu partehartzaileetan herritarrek aukeratu zutena. 83.435,55 euroan (BEZ barne) jarri dute martxan lehiaketa.

Horrez gain, Erribera kultur etxeko hornikuntza prestatzen jarraitzen duela jakinarazi du Udalak, eta azaldu du, ikus-entzunezko ekipamendua apiril

esleitu zela, baina bosgarren lotearen (proiektzio-ekipoa) esleipena mahai gainean uztea erabaki zela, «Kelonik Digital S.L. enpresak aurkeztutako eskaintza, nabarmen baxua izateagatik, egingarria zen edo ez zehaztu arte». Ondoren, enpresak eskaintako prezioaren maila baxuaren justifikazioa aurkeztu zuen, eta dokumentazioa aztertu ondoren, «eskaintza onartu daitekeela» ikusi du Udalak. Hori dela eta, enpresa horri bosgarren lotea esleitzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzordeak.

**Aurreko enpresak eskatutako baldintzak betetzen ez dituela eta, Sabai Arkitektoak enpresari esleitu diote orain, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko zerbitzu kontratua.**

Horrekin batera, onartu zuten lehiaketa martxan jartzea, Erribera Kultur Etxeko liburutegi, sarrera, bulego eta areto batzuetarako altzariak eta ekipamendua hornitu eta instalatzeko.

Hiru elkarterekin dirulaguntza izendunen hitzarmanak «berritzea» ere onartu zen Tokiko Gobernu Batzordean: AEK euskaltegiarena, Herri Eskolako guraso elkartearena, eta Xaguxar Aisialdi taldearena.

**Udari begira, erabaki gehiago** Udari begira, oraindik erabakiak hartzeko dauzkala jakinarazi du Astigarragako Udalak.

Igerilekuak ekainaren 29an irekiko dira, baina alde zuzenetik hitzordua eskatuta, «aglomerazioak sahiesteko eta segurtasuna bermatze aldera».

Herriko festei dagokionez, oraindik ez dute ezer zehatzik erabaki. Ekainaren 25ean egingo dute horiei buruzko bilera, hain justu. Baina azaldu dute, «kultur ekintzak» egitea dela asmoa, beti aforoa kontrolatuz, distantziak mantenduz... **K**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

**KIMERA**  
Fisioterapia - Osteopatia

[www.kimerafisioterapia.com](http://www.kimerafisioterapia.com)

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

**EGURALDIA GAUR** Hobera egingo du eguraldiak. Goizean tarteka zerua lainotuko bada ere, garbitu egingo du gero, eta eguzkitsu geratuko da. Dena den, haizea iparraldetik finkatuko da arratsaldean, eta indarra hartuko du. **Min.12° / Max.20°**

**BIHAR** Udako giroa nagusituko da, udaberriaren azkeneko egunean. Laino gubi agertuko dira zeruan, eta eguzkitsu egongo da. Haize aldakor eta ahula ibiliko da, baina arratsaldean ipar-ekialdetik finkatu eta bizitu egingo da. **Min.12° / Max.23°**

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gaez: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## Paco Goya hil da, 14 urtez izan zena Goiz Eguzkiko lehendakari

Atzo hil zen jubilatuen egoitzako lehendakari ohia, 82 urterekin.

**HERNANI HERIOTZA**

Paco Goya Zubeldia hil zen atzo, 14 urtez Goiz Eguzki Hernaniko jubilatuen egoitzako lehendakari izan zena. 82 urte zituen Goyak, eta aurtengo otsailean utzi zion Goiz Eguzkiko zuzendaritzaren buru izateari, beste talde batek erreleboa hartuta.

Lehendakaria bakarrik ez, erreferentziako pertsona ere bazen Paco Goya, jubilatuen egoitzan; guztientzako ezaguna. Bulego barruko lanetik harago, mikrofonoa hartuta agertzen zen Goiz Eguzkiko ospakizun guztietan, eta bere umorearekin



Paco Goya, Goiz Eguzkin, mikrofonoa hartuta. Ekitaldiak alaitzen aritzen zen.

alaitzen zituen ekitaldiak, etengabe *saltsa* jarrita.

Jubilatuen egoitzaren etorkizunarekin kezkatu da beti, eta otsailean kargua utzi ondoren, «oso pozik» agertu zen, etorkizuna izango zuelako Goiz Eguz-

kik, eta ez zelako «ontzi hau ondorotuko», adierazi zuenez.

Berak kargua utzi eta berehala eragin zuen etena pandemiak Goiz Eguzkin, eta egoitzaz bazkide soil gisa gozatzeko aukerarik izan gabe hil zen atzo. **K**

## Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

Kontzentrazioa egingo dute gaur, 20:00etan Zinkoenean, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek deituta.

## Ainhoa Larrañaga kantari gaur, online

Emanaldi laburra eskainiko du gaur Ainhoa Larrañaga abeslari hernaniarrak, 19:30etan, Hernaniko Udalaren Youtubeko kanalean.

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† JUAN IRAOLA MINER**

Atzo hil zen, 84 urte zituela

- Goian bego -

Emaztea: Isabel Urkizu; seme-alabak: Juan Mari eta Jaione Ado; biloba: Jon; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **SEIETAN, Ereñotzuko ANTONIO DEUNAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Ereñotzu-Hernanin, 2020ko ekainaren 19an**

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:15ak arte.

**† JUAN IRAOLA MINER**

- Goian bego -

"Zuk erakutsi duzun indarra eta bizi-poza, bidali guri."

Haren anai-arrebak: Pilar (†), Josefa (†) eta Claudio Bereciartua (†), Ignacio eta Maria Luisa Garin (†), Isabel eta Juan Salaberria (†); Benito eta Maritxu Larrarte.

**Ereñotzu-Hernanin, 2020ko ekainaren 19an**

**FRANCISCO GOYA ZUBELDIA**

**GOIZ EGUZKIKO ZURE JUNTAKIDEAK**

**Hernanin, 2020ko ekainaren 19an**

**FRANCISCO GOYA ZUBELDIA**

*Hernaniko jubilatutaldeen abesbatza... eta bizipoza denez gure senaren ardatza, badugu oraindik luze kantatzeko esperantza. Eskerrik asko, Pako!*

**GOIZ EGUZKI ABESBATZA**

**Hernanin, 2020ko ekainaren 19an**

**FRANCISCO GOYA ZUBELDIA**

*Zure lana eskertuz, gogoan zaitugu.*

**GOIZ EGUZKI JUBILATUEN ETXEA**

**Hernanin, 2020ko ekainaren 19an**



Udaletxeko arkupeetan biltzeko hitzordua jarri dute berriro, erretiratu eta pentsiodunek.

## Pentsiodunen elkarretaratzea deitu dute datorren astelehenerako, Plazan

Udaletxeko arkupeetan elkartuko dira, eguerdiko 12:00etan, bilera bat egiteko, beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuta.

**HERNANI PENSIODUNAK**

Plazan elkartzen ziren astelehenero, erretiratuak eta pentsiodunak, beraien eskubideak aldarrikatu eta pentsio eta bizitza duin bat izatea eskatzeko. Koronabirusagatik alarma egoera ezarri baino lehen izan zen hori, baina eten egin zituzten deialdiak, martxoan.

Hiru hilabete hauetan, ordea, ez dute galdu grina, alda-

rrikapenekin jarraitzeko. Eta horregatik, elkarretaratzea deitu dute datorren astelehenera, Plazan bertan, udaletxeko arkupeetan. Eguerdiko 12:00etan egingo dute bilera.

**Beharrezko neurriak hartuta, hurrengo pausoak mahai gainean jartzeko ordua** Elkarretaratzea egiteko, hori bai, beharrezko segurtasun neurri guztiak hartuko dituzte, aurre-

ratu dutenez. Guzti horiekin, bat egiteko deia luzatu diete, «adinekoen, pentsioen eta zaharren egoitzen egoerarekin kezkatuta» dauden guztiei, eta egoera horrek eragiten dienei. «Erretiratuek eta pentsiodunek ahotsa eta botoa ditugu», nabarmendu dute deialdian.

Landuko dituzten gaien artean daude, besteak beste, honakoak: pentsio publiko eta duinak defendatzea, «orain eta betirako»; osasun publiko eta kalitateazkoaren alde egitea; nahi gabeko bakardadeari konponbidea bilatzea; eta pobreziaaren aurka egin eta RGI duina eskatzea. **K**

## IRAGARKI MERKEAK

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**